

# Gobernatu gabeko pornografia



**BEÑAT MUGURUZA**  
ASEGINOLAZA  
IRAKASLEA ETA  
IKERTZAILEA

**B**atzuk trufatzen dira gobernuz kanpoko erakundeei (GKE) dirua ematen dion jendeaz. Bestalde, ez da dotorea lau haizeetara zabaltzea ongintzara-edo bideratzen duzula zure soldataren parte txiki bat, eta beraz ez da defendatzen posizio erraza. Tira, animatuko naiz: sinesten dut, inuzentea ni, zerbaiterako balio duela keinuak. Kontua da duela urte pare bat utzi nuela GKE bat, eta berriz deitu didatela aste honetan, orduan emandako laguntzagatik eskerrak emateko, eta mesedez nire laguntza behar dutela berriz.

Konbentzituta nengoen tolesgabe agertuko nintzela langile haren aurrean, baina Afrikako ez dakit zein herrialde-tako egoerari buruz hitz egiten hasi zaidanean, bihotza samurru zitzaidan, eta amore eman nuen ia. Pentsatzen nuen informazioa bere horretan helaraztea ez zela ni mugiarazteko gai izango, jakin nahi duenak hor daukalako, eskuragarri, nonahi... Baina bai, ia eman nuen urratsa.

Aste batzuk lehenago gertatutakoarekin lotu nuen pentsamendu hura. Hizkuntza-akademian egokitu zitzaidan pornografiari buruz hitz egitea. Alar-mista -ia apokaliptiko- atera zitzaidan ahozko ariketa, aitortzen dut, baina Save the Children-ek (ez, ez zen hori nire GKEa) iaz kaleratu txostenak pixka

bat kolpatu ninduen. 40 eta piko urteko emakumezko ikaskide batek kontra egin zidan, eta nik onartu, kiroltasunez. Erabilitako argudioak harritu ninduen, ordea: sexua oraindik tabua den gizarte honetan zeinen erraz kritikatzin dugun pornografia, baina aizu, sexu-heziketa garrantzitsua dela gaztetxoentzat. Alegia, iruditu zitzaidan karkatzat hartu ninduela, besterik gabe. Segur aski ez zebilen erabat oker. Baina neure baitan pentsatu nuen, eta agian ni banago oker, fede oneko emakume hura ez zela bereziki jakitun pornografia *mainstream*-a zertan datzan gaur egun. *Mainstream*-a, esan nahi baita, gizonezko hetero-oi zuzenduta dagoena.

Beraz, dela batzuk erdi disimuluan gabiltzalako, dela beste batzuk ez direlako enteratzen, pornografiak segitzen du gazteen sexu-heziketarako eragile nagusi izaten, eta... Barka, hasi behar nuen berriz nire matraka katastrofistarekin.

Zeren noski, jakingo balitz, nik zer dakit, agian sortuko litzateke mugimendu abolizionista bat, eta beste batzuek pornografia erregulatzearen alde egingo lukete -langileen baldintza duinak bermatuz-, eta, konturatzerako, elkarren etsai nagusi bilakatuko liriateke. Eta *señoro*, aliatu eta enparauok beste behin eztabaidaren lekuko pribilegiatu, krispetak besterik falta ez zaizkigula. ●

## Zain



**CASTILLO SUÁREZ**  
IDAZLEA

**G**ipuzkoako eskualdeko ospitale bat zen. Larrialdi zerbitzuetara jendea tantaka iristen ari zen: ume bat futbollean erorikoa izanda, mendian zorabiatu zen gizona, analisisietarako paperak esku artean zituen neska... Ez nintzen ohartu adineko emakume bat zegoela itxaron gelan, gainerako gaixoen eta laguntzaileen artean. Ezer gutxi esaten du jendeak horrelakoetan. Tarteka muturra okertzen duten batzuk haien ondotik iritsitako batzuk artatuko dituztelako. "Larrialdietan larritasunak erabakitzen du ordena", esaten du erizain batek, norbait galdezka hurbiltzen zaio-

nean. Eta biltegi moduko batean bukatu duzu, aparatuez eta materialez beteta, zain. Orduan emakume bat ekarri dute andetan, eta bertan utzi dute. Ez omen da inorekin etorri. Ez omen da inor bere bila etorri. Eta ez da pena sentitu duzuna emakumeAren ikusi duzunean, zure zurekoikeriak zuzan pentsatzera eraman behar zaituelako, ea nork zainduko zaituen zahartzen zarenean, ez ote den askok burutan dutena mundura umeak ekartzen saiatzen direnean. Eta beharbada emakume horrek seme-alabak bazituen. Bat baino gehiago apika. Batek daki. ●